


## “BALEAREN ARRANTZA, LOPE MARTINEZ ISASTI ETA JOANES LEZOKO”

### 1.- EUSKAL BALENZALEAK TERNUAN ETA KANADAKO IPARRALDEAN

Nahiz eta gaur egun ezin zehaztu zein urtetan iritsi ziren euskal balenzaleak Ipar Ameriketako Labrador, Ternua —Terranova—, eta Ipar Kanadako itsasertzetara, badirudi Colon iritsi baino askoz aurretik handikan zebiltzabela balearen harrapatzeari jo ta ke ekinez. Noiztik zebiltzaten handikan, ez dakigu, baina bai ohitura zaharra zela gure arrantzaleen artean, zahar zaharra eta urteetan zehar luze iraun duena.

Lope Martinez Isastik, XVII. mendeko lezoar historiagileak bere “Compendio Historial de Guipuzcoa” izeneko liburu mardulean, honen berri ematen digu, eta berak dioenez, euskal bale arrantzaleek Ternuara joateko zeukaten ohitura zahar zaharra zen, denboren iluntasunetan galtzen zen ohitura zaharra. Euskal balenzaleen zenbait aztarna gelditu zaizkigu, bai bertakoen hizkeran, bai beren erraminta eta arrantza teknikan, eta baita bertako toponimian ere.

Garaiko dokumentaziotik dakigunez, euskaldunek bertako inditarrekin zerabilkiten harreman hizkuntza euskara zen. Eta dirudienez, bertakoek oso ongi ikasi zuten euskaraz, behintzat euskaldunekin beren tratuak egiteko heinean.



*Balea motak eta bere bizilekua:  
Goitik beherra eta ezker-eskuin: Balea grisa 13-15 m. Ozeano Barekoa. Groenlandiako balea 15—25 m. Ipar itsasoetakoak.  
Euskal balea 14-18 m. Atlantiko Ozenakoa. Xibarta, 11-16 m. munduko itsaso guztietan, Ipar eta Hego Buruetakoak salbu.  
Balea urdina, balea guztietan handiena, 22-30 m. Ipar eta Hego Buruetakoak itsasoetan.*




Aipatutako Lope Isasti historiagileak, 1625. urtean idatzitako liburu ospetsuan kontatzen digunez, Ternuako inditarrek oso ondo omen zekiten euskaraz, eta euskaldunekin zituzten harremanak guztiz paketsu eta adiskidetsuak izaten ziren. Euskal arrantzaleek “Zer moduz?” galdetzen dietenean —jarraitzen du kontari Isastik— “Apaizak hobeto!” erantzuten diete adiskideki, nahiz eta gehienek oso ondo ez jakin zer den apaiz bat. Hitzegiten eta tratuak egiten dituzte beti gure hizkuntzaz, eta askotan han ezagutzen ez dituzten sagardo eta ogiaren truke, ertzeetan arrai lanetan lagundu egiten diete.

Dirudenez, euskaldunek hasiera hasieratik Ternua ezagutu zuten, eta geroxeago Kanadako itsasertzeak eta San Lorentzo golkokoak, beren kaia, badia, lurmutur, golko eta bestelako toki geografikoak, euskaraz bataiatu zituztelarik: Bale-Badia, Barba-Zulo, Anton-Portu, Igarnatxoa, Etxaide-Portu, Burua-Xumea, Burua-Aundia, Uli-Zulo, Plazenzia, Baratxoa, Opor-Portu, Portutxo, Baia-Aundia, Niganitz, Mingaiñ, Sagenai, Eskumiñak, San Joan,... Badaude bestaldez ere, nahiz eta beste hizkuntzaz egon, oraindik gaur, euskaldunen garai bateko presentziaz ohartzen gaituena:

Baye de Bizkaye, Port-aux-Basques, Baye-aux-Basques, Exafaud-aux-Basques, Anse-aux-Basques, Les escúmins, Ile-aux-Basques,...

Arrasto gehiago badira, esate baterako Baia Haundia edo “Grande Baye” deiturikoan azaldutako San Joan izeneko euskal baleontzia, 1565. urtean hango uretan urperatu zena. Plazenzia izeneko herrian aurkitutako XVI. mendeko itsasgizonen hilobiak, euskal etxeen arrastoak, zenbait lanabes eta bestelako tresnak,...

Zer nolako harremanak izan zituzten bertakoekin ondo ezagutu ez arren, badaukagu honetaz Isastik bere liburuan egindako zenbait argitasuna. Martinez Isastik dioenez, hango uretan bale asko omen zeuden, baina itsasertzen ondoan mugitzen ziren izotzmendiak (iceberg-ak) zirela eta, beren harrapatzen lanak oso zailak egiten zitzaizkien euskaldunei. Bertako biztanle basatiek ere, oso traba handia egiten zieten. Isastiri jarraituz, ikus dezakegu ternuar kostaldeko biztanleak bi eratakoak zirela:



Baleak harrapatu eta zatitzeko tresnak: arpoiak eta ziztailuak; ganibetak, pala, burduntzali handia, bitsadera eta beste hainbat lanabes.





Baleak hainbat itsas herritako armarrietan. Gotik behera: Bermeokoa, Getariakoa eta Hondarribikoa.

“... Eskimao izenekoak dira okerrenak —dio—, guztiz salbaiak eta ankerrak, uztaia eta gezi en erabilkeran arras trebeak eta beraiekin harrapatzen dituzte guretako gizonak gero jateko. Besteak menditar edo kanalak izenekoak —eransten du Isastik— paketsuagoak dira, gure baleentzaleekin hitzegiten dute, eta eskimaoen etorreraz oharzen dituzte...”

Oso adierazgarriak baita ere, Patri Urkizuk bere “Bertso zahar eta berri zenbaiten bilduma” izeneko liburuan agertzen dizkigun, 1798. urterekin dataturik dauden zenbait testuren artean agertzen diren Ternuari buruzko honako bertso hauek:

— Ternura da mortu hotz,  
eremu triste arrotza,  
laboratzen ez den lurra,  
neguan bethi elhurra.

— Han oihan, sasi handiac,  
larreac eta mediac,  
harri, arroca gogorrac,  
lur agor eta idorrac.

— Han otsoac eta hartçac,  
basoco beztia gaitçac,  
alimalien herria,  
desertu icigarria.

— Ternuan dire salbaiac,  
ere isqimaü etsaiac,  
guiça bestia cruelac  
hillic jaten mariñelac.

Badaude bestalde, harreman hauetatik euskaldunak eta bertako inditarrak asko nahastu edo mestizatu egin zirela baieztatzen dutenak. Eta honela askotan entzun daiteke Ternuako “beothuksak” eta euskaldunak txol nahasturik zeudela. XVIII. mendean jende dezente uste zuen Labradorreko eskimalak bertakoek euskaldunekin izandako nahasketaren fruitu zirela. Gaur egun ez zaie teoria hauei jaramon haundirik egiten, ez bait da inolaz ere sinisten euskaldunak holako mestizatze haundira iritsi zirenik.

Nolanahi ere, inork gutxik jartzen du dudan bi taldeon arteko harremanak oso haundiak izan zirela, eta ondorioz, arrasto ugari utzi dutela bertako kanadiarren bizi-moduan, arrantza tekniketari, toponimian eta baita oroimen kolektiboan ere.

Amaitzeko aipatu beharra dago XVII. mendeko euskarazko idazleen artean badaudela baita ere, balenzale hauek eta beren Ternuarako bidaiei buruz, zenbait berri ematen digutenak, garrantzitsuenak Joanes Etxeberri Ziburukoa, Arnaut Oihenarte



eta Axular direlarik. Ikus dezagun gure idazle finak, 1643. urtean argitaratu eta gure literaturaren barruan idazlan gorenetzat harturiko "Gero" izeneko liburuan azaltzen digun paragrafo adierazgarria:

*"Gizon batec, bere herritic kanpora Indietara edo bertçe lekhu urrun batetara partitçen denean, eta oraiño bere herrico agherrian, comarçetan eta terminoetan denean, maiz behatçen du gibelat bere herrico mendietart. Baiña aitçina iraganez gero, itçultçen da betçe alderat, ioan behar duen eta dohan lekhu hartarat: eta han aldiz, bere begiac, eta gogoa ere ibentçentu".*

Joanes Etxeberri, 1627.ean idatzitako eta geroxeago 1669. urtean, Bordelen argitaratuko "Manuel Debotionezcoa edo Ezperen oren oro escuetan erabiltçeco liburutchoa" izeneko debozionarioan, eta "Balenzaleen otoiza" izen generikoaren barruan, gure balenzaleen bizimodu gogorra ondo adierazten diguten hiru errezutxo hauek azaltzen dizkigu.


### "Balea çaleentçat"

*"O Iaun Tobias gaztea ungui beguiratua,  
Guardariçat bidalduric Archangelu Saindua,  
Eta costara arrña erakharracia,  
Haren hilltçeco eguiten ciñoela gratia"*

*"O Iaun Tobias gaztea ungui beguiratua  
Gurdariçat bidalduric Archangelu Saindua,  
Eta bostara arraña erakharracia,  
Haren billtçeco eguiten ziñoela gratia".*

*"Guri ere ekharguçu hurbillera balea,  
Segurquiago armaren landatçeco colpea,  
Biciaren gatic dugu hirrisatçen bicia,  
Arren eguiguçu haren guelditçeco gratia".*

*Guri ere ekharguçu hurbillera balea,  
Segurquiago armaren landatçeco colpea.  
Biciaren gatic dugu hirrisatcen bicia  
Arren eguiguçu haren guelditceco gratia.*



*Bale ontzi baten eskema.*





*"Biciaren gatic dugu hirriscatçen bicia".*

### **"Balea colpatu eta"**

*"Iauna gueure arte baño gehiago cureaz,  
 Balea çauritu dugu arpoñaren colpeaz.  
 Arren bada eguiguçu (laun puchanta) gratia,  
 Sarri guelditceco arrain Itsassoco handia.  
 Gutaric garabic çaurçu gabe bere indarraz,  
 Segadetan dabillala buztan edo bulharraz.  
 Edo chalupa irauli gabe guillaz gañera,  
 Edo bereguin eraman gabe urtan behera.  
 Arren beguira gaitçatçu gaitz hauc guztietaric,  
 Esquerra dieçaçugun itçul lehorreraric.  
 Irabacia da handi, perrilla era handia,  
 Beguira dieçaçugu principalqui bicia.*

### **"Balea hill ondoco esquerrac"**


*Iauna, ditutçula esquer, eta laudorioa,  
 Million eta million baino guehiagoac.  
 Ceren eguiñ darocuçun liberalqui gratia,  
 Idequitceco handien arrañari bicia.  
 Gure indarrac etciren deus hunenen aldean,  
 Çure favorea dugu sentitu combatean.  
 Ecen çure bithan tturroñ batec etsajac,  
 Urrutic ici deçan naihz dela hangaja.  
 Hala guri ere eguin darocuçu dohaña,  
 Ventçutceco Itsassoan den sendoen arraña.  
 Lehorrera dakhar quegu eguiñic sarrasquia,  
 Bici dugu naturaren miraculluz bazterra,  
 Ohoratçen (longoicoa) çuc duçula esquerra".*



XVI. mendean, Maulen jaiotako eta geroxeago Luix XIII.aren menpean Nafarroako Parlamentuko abokatua izandako Arnault Oihenartek, latineraz idatzitako "Notitia utriusque Vasconiae" izenburuko liburuan esaten digunez, Donibane Lohitzuneko biztanle gehienak arrantzaleak zirenez gero, urtero joaten omen ziren Ternuara, untxiak makailuz beterik ekarriz, eta dirutza haundiak eginez. Ondoren gipuzkoar arrantzaleak aipatzerakoan, gauza-bera errepikatzen du, hauek makailua eta bale koipea zekarzkitela gehituz. Beste zehazkizun batetan esaten digunez, gipuzkoar arrantzaleek bale koipea pertza haundietan urtu egiten zuten eta gero barrika haunditan saltzen zuten "traia" izeneko olioia eginez.

## 2.- EUSKAL BALENZALEAK ISLANDIAN

Ternuako lurraldeetara iritsi aurretik euskal balenzaleak Islandia eta Groenlandiako itzasertzeetatik ibili ziren balea eta makailuari jarraituz. Noiztik zebiltzan handikan zaila zehaztea bada ere, badirudi oso garai zaharretatik egiten zutela. Dena den euskal balenzaleen presentziaz mintzatzen zaigun lehenengo idazkia 1604. urtekoa da. XVII. mende hasieratik hauen berri ematen diguten testimonio idatziak ugaritu egiten dira. Badirudi gero Ternuan, bertako biztanleekin gertatuko zen bezala, hemen Islandian ere, oinarriko euskararen antzeko zerbitu erabili izan zutela islandiar eta euskaldunen arteko merkatal harremanetan. Honen lekuko dugu 1637an, Amsterdamen, Dicolas Gerardus Hondricus Deen-ek argitaratu zituen bi latinerazko glosarioen barruan erantsitako "Euskara —islandera" hizteginia. Aipaturiko lehenengo glosarioan 517 hitz ematen zaizkigu, eta bigarrenean 228. Hitz hauek lapurteraz daudenez, Donibane Lohitzune edo inguruetakoa arrantzaleak zirela Vestifirdin izeneko herrialdean ibiltzen zirenak, suposatzen da. Glosario hauetan euskal mugatzailearen berezitasunak ongi aztertzeaz gain, infinitiboaren azterketa sakona, diptongoak, kontsonanteen taldeak, eta soinu konposatuak ematen dira ezagutzera. Bukatzeko lehen aipaturiko hiztegien taulak ematen direlarik. Hiztegi hauetan azaldutako hitz gehienek badute zer ikusirik bale arrantzarekin edo ondorengo merkatal tratuekin. Ikus ditzagun hauetako batzuk:



*Iparrameriketako toponimiak euskaldunak dakartzagu etengabe burura.*




EUSKARA (LAPURTERA)	ISLANDERA	EUSKARA BATUA
GISONA	MADUR	GIZONA
EMASTIA	KONA	EMAZTEA
HARA	BARA	HAURRA
ESKONDUBA	HION	EZKONDUA
UNCIA	SKIP	ITSASONTZIA
PILOTUBA	STYREMADUR	PILOTOA, TXOTXOA
LAGUNA	SKISPSFOLK	LAGUNA
OGIA	BRAUD	OGIA
ARNAUA	VYN	ARDOA
URA	VATN	URA
ESNIA	MIOLK	ESNEA
BALIA	HOALFISHUR	BALEA
BILLARA	TOBACH	TABAKOA, ERREBELARRA
ELISA	KYRKIA	ELIZA
ETSIA	HUS	ETXEA
GALSA	BUXUR	GALTZA, PRAKA
GALSA / BARNICUA	NABUXUR	GALTZABARNEKOA
ORASSIA	KAMBUR	ORRAZIA
DEBOSSIUNIA	LESTRAKBOK	MEZA LIBURUA /DEBOZIONARIOA
JANUNA	OFLATA	HOSTIA /JAUNONA
ENIA	PERFUR PU PAB	NIREA
ILIA	HAR	ILEA
BEGIGIA	AUGU	BEGIA
SUDURRA	NEF	SUDURRA
KOCCOTSA	HAKA	KOKOTSA
LEPPUA	HALS	LEPOA
BISARRA	SKEGO	BIZARRA
BULARRA	BINGA	BULARRA
SABILLA	MAGE	SABELA
SORBALDA	OXL	SORBALDA
BISCARRA	BRIGURR	BIZKARRA
ESCOMUTURRA	VLFLIDUR	ESKUMUTURRA
MIRALIA	STOR SPEIGELL	ISPILUA
ESCUBA	HOND	ESKUA
HARTSA	BIARNDYR	HARTZA
ARASALDIA	KVOLLD	ARRATSALDEA
BIGIAR	A MORGUN	BIHAR
SACURRA	SELUR	ITSASTXAKURRA / FOKA
ARENSURIA	HAKAL	MARRAZOA
PARRUCA	PIRRICH	ILEORDEA / PELUKA
SAPARDALACO	SNOPPUNGUR	MASAILEKOA /ZAPLASTAKOA

Eta salerosketak errazteko, bigarren glosarioan euskal zenbakien zerrenda eskeintzen zaigu: BAT, BIGIA, HYRU, LAUR, BORTS, SEI, SASPIR, SORCI, BEDHERACI, HAMAR, HAMEICA, HAMAVI, HAMAYRU, HAMALAU, HAMABORTS,... HOGOI...



Badago bestaldez, 1615.eko islandiar idazki bat oso gertakizun gogorra kontatzen diguna. Badirudi urte hartan hiru untzi gipuzkoar Islandiako itsasertzeetara iritsi zirela. Lehendabiz bi nao iritsi ziren, lehenengoan kapitaina Pedro Agirre izenekoa zen eta bigarrenean Esteban Telleria zeritzana. Hiru egun beranduago, beste biak baino haundiagoa zen hirugarren untzia iritsi zen, bertako kapitaina Martin de Villafranca donostiarra zelarik. Osora 85 marinel ziren. Aipaturiko hiru untziak legorretik oso gertu ainguratú ziren eta bertatik jaurtiki egiten zizkieten beren arpoiak hurbil igarotzen ziren balea ugariei.




*"Guri ere ekharguçu hurbillera balea, segurquiago armaren landatçeco colpea".*

Inguruetako kostaldetik islandiar franko egoten ziren euskaldunen arrantza ikusi nahian. Behin hamaika balea harrapatu omen zituzten eta beste hainbeste zauritu. Behin harrapatuz gero legorrera eramaten ziren txikitzera eta zatitzera, eta nahiz eta Reyk jafjördur eskualdeko gobernadoreak galerazita eduki, islandiarrei beren koipea saldu egiten zieten. Garai haiek zailtzen ari ziren euskaldunentzat, daniarrak, olandresak, ingelesak eta frantse-

sak bale arrantzan hasiak bait ziren, gure arbasoen monopolioa arriskuan ipiniz. Eta Islandiaren jabe ziren daniarrek, urte haietatik aurrera bale arrantzarako baimenak kendu egin zizkietan euskal balenzaleei. Hortarako Danimarkako errege zen Christian IV.ak bere erret agindu batean, euskaldunen kontrako zenbait argudio plazaratu zituen, beraren ustez gure arbasoen jokaera ez bait zen beti paketsua, eta gainera oso gustu txarreko txantxak egiten omen zizkieten bertako biztanleei.

Islandiako daniar gobernadoreak hiru untzi gipuzkoarren berri izan zuenean, beraien kontrako ekintzak agindu zizkion arduradun nagusia zen Ari Magnusson-i. Hala eta guztiz ere 1615.eko uda inolako istilurik gabe iragan zen. Irailaren 13an bukatu egin zituzten azkeneko lanak eta itsasoratu aurretik bildu egin ziren kontuak argitzeko asmotan. Hurrengo egunean Martin kapitaina zenbait marinelekin aldamenean zegoen Arnes herrirantz abiatu ziren, bertako apaiz luteranoa beraiekin zorretan bait zegoen euskaldunek emandako baleki puska haundi batengatik. Trukean ardi batzuk eskatzen omen zizkieten. Apaizak dana ukatzen zuen eroarena joaz eta ez zien sosik ordaindu nahi. Eztabaidaren erdian marinel euskaldun batek soka bat ipini zion lepoaren inguruan, eta ondorioz apaiz luteranoak zezen bat eta txekor eder bat eskeini zien ordain gisa.





*Badia Handia deiturikoan, euskal itsasuntziak ainguraturik.*

Gau hartan gertatu zena ikaragarria izan zen. Ekaitz haundi batek Martin eta Pedroren untziak lotzen zituzten untziak hautsi egin zituen, eta ondorioz bi naoak txikitu egin ziren inguruetan zituzten izeberg ugariekin topo eginez. Bitartean Arneseko apaizak bertako agintariena jo zuen, eta hauek gehiegi pentsatu gabe armada koxkor bat bidali zuten euskaldunen aurka, gobernadore bera buru zelarik. Urriko 13an, ostirala, euskaldunak Aedey-ko eskualdean, untziren bat edo, erosten saiatzen ziren bitartean, gobernadoreak eta bere gizonak erasotzeri ekin zioten. Euskal balenzaleak erahilik izan ziren lo zeudela, eta bakar bakarrik salbatu ziren sarraski honetatik aldameneko baserri batean lotan zeuden Martin de Villafranca kapitaina eta bere gizonak. Baserria inguratu zutenean Martin kapitaina irten zen bakarrik eta barkazioa eskatu zien, eta baita daniar gobernadoreak berehalaxe onartu ere. Baina Martinek, gobernadorearen hitzean sinistuz, bere zizpoleta ematen zien bitartean, daniar soldadu batek ikaragarritzko aizkorada eman zion lepoan. Martin kapitainak, hiltzorian zegoela, alde egin ahal izan zuen bere burua itsasora boteaz, orduan islandiarrak harrika hasi omen ziren bere biziarekin amaituz. Gero erasotu zuten euskaldun marinela babesten ziren baserria danak akatuz. Gorpuak itsaso aurreko harkaitzetara eramanez eta biluztu ondoren, sabela ireki egin zieten. Ondoren danak elkarrekin lotu eta itsasora bota egin zituzten. Bakarrik beste lanetan ari ziren zenbait euskaldun salbatu ahal izan ziren sarraski honetatik, eta hurrengo urtean, 1616.ean hain zuzen, ihes egin zuten Islandiatik Euskal Herri aldera, ingeles untzi batean.

### **3.- EUSKALDUNEN BALE-ARRANTZARI BURUZKO ZENBAIT ZEHAZKIZUN KRONOLOGIKO**

— 670. urtean azaltzen zaigu euskaldunen bale-arrantzari buruz, lehenengo albistea ematen digun idazkia. Bertan esaten zaigunez, Lapurditik Rouan eta El Havreraren artean dagoen Sena ibaiko latsetan kokaturiko Jumieges hirira hamar bat tona lumera (= balearen olio) bidali omen ziren argiterian erabil zezaten.



*Fructuoso eta Harriet-ek sortutako "Justin Harriet" pertsonaiaren komiki-albumetan behin baino gehiago deskribitu da aspaldiko euskaldunak nola lur haietan ibili ziren.*



— 1371.ean beste idazki batean kontaktzen zaigunez, euskal arrantzaleak ba omen zebiltzan balearen atzetik, Asturia eta Galiziako itsasertzeetatik barrena.

— 1412.ean, islandiar kronika batean kontaktzen denez, hoge euskal itsasontzi iritsi omen ziren Groenderfjord izeneko eskualdera eta baita Grunder-eko Golkora ere.

— 1497.ean, Cabot-ek Ingalaterraren izenean, Ternua ikertu zuenean, makailua-  
ren arrantzan aritzen ziren arrantzale euskaldunak, aurkitu omen zituen. Hori dela eta berak egindako karta nautikoan "Makailuen lurraldea"-z bataiatu zuen gaur Ternuaz (Terranova) ezagutzen dugun lurraldea.

— 1517.eko irailaren 23an dataturik dagoen salmenta agiri batean irakur daitekeenez, merkatari lohitzundar batek makailu kopuru handia saldu zion Bordeleko beste bati.


— 1520.ean Pierre de Landek, "Sanct Pe" izeneko untziaren jabeak, baimena eskatu zion Baionako Kontzejuari bere zama osa ahal izateko Capbreton-eko kaian eta geroxeago Ternua alderantz abia ahal izateko.

— 1521.eko martxoaren 31ean, Baionako Kontzejuak baimena eman zien bai Pierre de Landeri eta baita "Marie" izeneko untziaren jabe zen Matheu de Biran merkatari baionesari ere, Ternua aldera abiatzeko.

— 1542.ean, Ternuako itsasertzeetan gutxienez bost bat euskal untzi aritzen omen dira arrantzan. Bi Oriokoak dira eta beste hirurak Donostiakoak.

— 1571.urtean, 15 euskal untzi abiatu ziren Ternua alderantz, balearen arrantzan aritzeko asmotan, nahiz eta urte hartan emandako erret enbargoa ikaragarria izan. Osora 1.180 marinel omen ziren.





*Ternura da mortu hotza, eremu triste arrotza, laboratcen ez den lurra, neguan bethi elhurra.*

— 1570. urtean JOANES LEZOKOaren untzia Ternuako uretan hondaratu zen. Tripulazioa salbatu zen izeberg baten gainean, eta bertatik erreskatatu omen zituen ondoren beste untzi gipuzkoar batek.

— 1572.ean, Hondarribiko Joanes Landagorrietak lau txalupa saldu zizkion JOANES LEZOKOari hogeitukateren truke. Salmenta Labrador penintsulako Chateau Bay badian (gaur egun daraman izena) gauzatu zen.

Azken bi datu hauetan azaltzen zaigu gaur ezagutzen dugun lehengo lezoar balenzalearen izena, JOANES LEZOKO edo "Joanes de Lezo". Honi buruz herriko semea eta historiagilea den Lander Zurutuzak honela kontatzen digu Lezoko Udalak 1991.ean argitaratu zuen "Lezoarrak itsasoan" izeneko idazlan ilustratuan: "1570. urtean ekaitz batek JOANES LEZOKO kapitainaren untzia txikitu zuen Ternuan. Marinel lezoarrak ahal zen moduan lehorreratu ziren elurra eta jela artera. Bustirik eta hotzak ia akaturik zeudela su bat piztu zuten ur bazterrean aurkitutako polbora barrikatxo bati esker. Horrela, arropak lehortu orduko, oinez abiatu ziren gertuen zegoen posturantz. Hara iritsitakoan Gipuzkoako untzi bat egokitu zitzaien eta bertan itzuli ziren Lezora". Lander berak luzatzen digu bigarren balenzale lezoar baten izena honako testuaren bitartez: "FRANTZISKO ETXEBESTEK kortsari bezala "veedor" kargua izan zuen eta balenzale bezala kondestablearena. Lezon hil zen 1733. urtean". Agur eta ohore bada, bai JOANES LEZOKO eta FRANTZISKO ETXEBESTEri eta bai hango itsaso hormatuetan balea edo makailuaren arrantzan aritu izan ziren euskal arrantzale guztiei!

**JOSEBA AURKENERENA BARANDIARAN**



## ERABILITAKO BIBLIOGRAFIA:

- 1.- BELANGER, René:  
"LOS VASCOS EN EL ESTUARIO DE SAN LORENZO"  
Añamendi Argitaletxea, Donostia, 1980
- 2.- HUXLEY, Selma:  
"LOS VASCOS Y LAS PESQUERIAS TRASATLANTICAS"  
ITSASOA III, Etor Argitaletxea, Donostia, 1987
- 3.- LABURU, Miguel:  
"AMERICA, VASCOS Y BALLENAS"  
Gipuzkoako Merkataritza, Industria eta Itsasketa Bazkude Ofiziala argt., Donostia  
1991
- 4.- MARTINEZ ISASTI, Lope:  
"COMPENDIO HISTORIAL DE LA M.N. Y M.L. PROVINCIA DE GUIPUZCOA"  
1625
- 5.- ZIRIKIAIN GAZTARRO, Mariano:  
"LOS VASCOS EN LA PESCA DE LA BALLENA"  
E.H.-ren Lagunen Liburutegia Argt., 1961
- 6.- ZURUTUZA, Lander:  
"LEZOARRAK ITSASOAN"  
Lezoko Udala Argt., Lezo, 1991

